Hirugarrena.- Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 58.355,84 euroko kreditua gordeko du Arabako Lurralde Historikoaren indarreko aurrekontuaren 02-41 lerroari dagokion partidaren kontura.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 15a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaria, OSCAR BELTRÁN DE OTÁLORA MARTÍNEZ DE ANTOÑANA.

*Foru Aginduak*

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**6514**

**130/2011 FORU AGINDUA, azaroaren 2koa, behin betiko onartzen duena, baldintzekin, Arraia-Maeztuko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espedientea, Esther (1. zatikia) meatze emakidaren eremuaren barruan Minoria Aurrealdea handitzeari dagokiona.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Arraia - Maeztuko Udalak, 2010eko maiatzaren 3ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion, Laminoriako harrobiari dagokionez, planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espedienteari, bai eta espediente hori jendaurrean jartzeari ere. Azken horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOn (2010eko maiatzaren 14a, 52 zk.), El Correo egunkarian (2010eko maiatzaren 13an), Diario de Noticias de Álava egunkarian (2010eko maiatzaren 12an) eta udal iragarki taulan. Era berean, administrazio batzarrei, udal mugakideei eta sektorean eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi zitzaien.

Bigarrena.- Udal arkitektoak 2010eko ekainaren 2an izenpetutako txostenaren ondorioz, udalak, 2010eko ekainaren 3ko bilkuran, hasierako onarpena ematen zion beste erabaki bat onartu zuen, zeren eta txosten horretan adierazten baitzen harrobia handitzeak 204,84 hektareari eragiten ziola eta ez hasierako onarpenari buruzko erabakiak aipatzen zituen 124 hektareei. Horiek horrela, erabaki hori ere aurrekoaren era berean jarri zen jendaurrean.

Hirugarrena.- Jendaurrean egon zen bitartean bost alegazio aurkeztu ziren. Aldaketa idatzi zuen taldeak eta udal arkitektoak egin zituzten alegazio horiei buruzko txostenak. Horiek horrela, udalak, 2011ko martxoaren 16an, aurkeztutako alegazioak ezetsi eta behinbehineko onarpena eman zion espedienteari, bai eta agindu ere, ingurumen eraginaren behin betiko txostena egindakoan, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaltzeko.

Laugarrena.-Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamendurako Atalaren ekainaren 7ko 3/2011 bilkuran, baiezkoa eman zion espedienteari eta Energia eta Meategien Zuzendaritzak eta Biodibertsitate eta Ingurumeneko Partaidetza Zuzendaritzak egindako txostenak erantsi zizkion.

Bosgarrena.- Arraia-Maeztuko Udalak proposatutako aldaketak lurzoru ez urbanizagarriari eragiten dionez gero, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura izapidetu da. Horrez gain, 2008ko ekainaren 1ean, aurretiazko kontsulten txostena, 2008ko urriaren 3an, aurretxostena, 2010eko urtarrilaren 22an, haren osagarria eta, azkenik, 2011ko ekainaren 10ean, behin betiko txostena ere eman ziren.

Seigarrena.- Era berean, Arabako Hirigintza Batzordeak, urriaren 27ko 6/2011 bilkuran, espediente horren gaineko txostena egin zuen.

II.- OINARRIAK

**Lehenengoa.- Proposatutako egoeraren helburua eta definizioa.**

Espedienteak 178,11 hektarea urbanizaezin harrobi kalifikatzea du helburu, bai eta Laminoriako mendilerroan egun Eusebio Echave SAk ustiatzen duen enpresa handitzea ere. Ustiatze lan horiek esleituta duen ESTHER (hirugarren zatikia, 1893 zk.) emakidaren ondorioz egin ditzake.

Tercero.- Por la Dirección de Finanzas y Presupuestos se reservará el crédito de 58.355,84, con cargo a la partida correspondiente a la línea 02-41 del vigente Presupuesto del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 15 de noviembre de 2011.– Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Director de Gabinete de Diputado General, OSCAR BELTRÁN DE OTÁLORA MARTÍNEZ DE ANTOÑANA.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**6514**

**ORDEN FORAL 130/2011, de 2 de noviembre, aprobación definitiva con condiciones del expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Arraia-Maeztu, referente a la ampliación del Frente Minoria dentro del ámbito de la concesión minera Esther Fracción 1ª.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- El Ayuntamiento de Arraia-Maeztu acordó, en sesión del día 3 de mayo de 2010, aprobar inicialmente el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, referente a la cantera de Laminoria, así como someterlo a información pública, hecho que fue practicado mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOTHA nº 52, de 14 de mayo de 2010, en el periódico El Correo, de 13 de mayo de 2010, en el periódico Diario de Noticias de Álava del 12 de mayo de 2010, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, notificación a las juntas administrativas, a los ayuntamientos colindantes y a las administraciones públicas con competencias sectoriales.

Segundo.- Como consecuencia del informe emitido por la arquitecta municipal, de fecha 2 de junio de 2010, en el que se señala que la superficie afectada por la ampliación de la cantera asciende aproximadamente a 204,84 hectáreas en vez de las 124 hectáreas a las que se hacía alusión en el acuerdo de aprobación inicial, se volvió a adoptar un nuevo acuerde de aprobación inicial en sesión del día 3 de junio de 2010, que fue objeto de la misma información pública que el primer acuerdo.

Tercero.- Durante el periodo de información pública fueron presentadas cinco alegaciones que fueron informadas por el equipo redactor de la modificación, así como por la arquitecta municipal, procediendo el Ayuntamiento, en sesión del día 16 de marzo de 2011, a aprobar provisionalmente el expediente con desestimación de las alegaciones presentadas y ordenar su remisión, una vez emitido el informe definitivo de impacto ambiental, a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Cuarto.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su Sesión 3/2011, de 7 de junio, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava, informó favorablemente el expediente, adjuntando los informes emitidos por la Dirección de Energía y Minas y por la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental.

Quinto.- Dado que la modificación propuesta por el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu afecta al suelo no urbanizable, ha sido tramitado el correspondiente procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, habiéndose emitido el informe de consultas previas el 1 de junio de 2008, el informe preliminar el 3 de octubre de 2008 y su complementario el 22 de enero de 2010, y por último el informe definitivo el 10 de junio de 2011.

Sexto.- Asimismo, el expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su sesión 6/2011, de 27 de octubre.

II.- FUNDAMENTOS

**Primero.- Objeto y definición de la situación propuesta.**

El expediente tiene por objeto calificar como zona canterable no urbanizable de 178,11 Has. posibilitando la ampliación de la empresa que Eusebio Echave S.A. explota actualmente en la sierra de Laminoria en virtud de la concesión de explotación ESTHER fracción tercera nº 1893 que tiene adjudicada.

Hasierako onarpena ematen zuen erabakian eragindako azalera 204,8 hektarea zirela aipatzen bazen ere, jarduera eremuaren mugetan egin diren zenbait aldaketaren ondorioz, harrobi zona 178,11 hektareakoa izango da.

Alde hori iparraldeko eta mendebaldeko mugetan egindako aldaketen ondorioa da. Horrez gain, ingurumen eraginaren prozeduraren eta ustiapenak okupatutako lurzorua hartzen duen harearen azterketa geologikoen ondorioz, Perraran trokako zona proposamenetik at geratzen da.

**Bigarrena.- Aurkeztutako espedientearen egokitasuna.**

Lurzoruaren sailkapenari eragiten ez dionez gero eta lurraldearen egiturari urrunetik eta puntu batean baino eragiten ez dionez gero, egoki jotzen da arauen aldaketa espedientea, baldin eta 2/2006 Legearen 103., 104. eta 105. artikuluetan xedatutakoa betetzen bada, hots aipatutako plana eta izapidetutako prozedura bera betez egiten bada.

Beraz, orain arte aurkeztutako agiriez gain, faseka egitea aurreikusten den jardueraren bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlana egingo da (2/2006 Legearen 103., 104. eta 62. artikuluak).

**Hirugarrena.- Hiri antolamenduan eta babestutako lurzoru urbanizaezinean duen eragina dela eta, ustiapenaren egungo egoera.**

Espedienteak 177,8 hektarea berriro kalifikatzea proposatzen du, hau da, Z9 babes bereziko zonatik Z8 harrobi zonara pasatzea. Hektarea horietatik 58,71 hektareatan dagoeneko erauzten da harrobian, beraz, espediente horren helburua egoera hori legeztatzea da.

Harritu egiten du, bestalde, harrobiko egungo 144,08 hektareen iparraldeko mugan Z2 baso babeserako zonaren 11,87 hektareari betelanek eragiten dioten inguru bat izatea, Largo trokari eragiten diona. Halaber, harritu egiten du ekialdeko mugan harrobi aurpegi bi, guztira, 9,56 hektarea, irekirik izatea eta aldaketa espedientean jasota ez izatea; beraz, egoera hori argituta, prozedura honi gehitu beharko zaizkio, bata harrobi gisa eta bestea leheneratu beharreko baso gisa, hala badagokio. Ez da inon ageri, hortaz, arauzko jarduera eta obra baimenik dutela. Gabezia hori ebaztea edo zuzentzea udal bulegoei dagokie.

**Laugarrena.- Onura publikoko mendiak (OPM) okupatzea.**

Mendien Foru Zerbitzuak izapidetze prozedurari buruzko bi txosten egin zituen, bata 2010eko abuztuaren 12an eta bestea 2011ko irailaren 28an, lehenengoa Arraia-Maeztuko Udalak emandako hasierako onarpenaren ondorengo espedientea jendaurrean jartzeari buruzkoa eta bigarrena ingurumen eraginaren azterlanaren izapidetzeari buruzkoa. Txosten horietan Mendien 11/2007 Foru Arauaren 26.3 artikuluan eta estatuetan udal planeamenduetan baso erabilerak izan behar duen mugaketari buruzko 13/2003 Legearen 39. artikuluan xedatutakoa aipatzen da. Txosten horietan eskatzen da aldaketaren izapidetzea bertan behera utz dadila, harik eta onura publikoko mendiaren okupazio espedientea ebazten den arte.

Egungo hirigintza legeria aplikatzearen ondorioz, hirigintza izapideekin batera ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura baino ez da izapidetzen, halaxe xedatzen baitu uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak.

Sektore (errepideak, ura, mendi...) baimenek beren prozedura propioa dute, hirigintza prozeduratik aparte izapidetzen direnak. Ezinbestekoa da udalari aurkezten zaion zernahi jarduera baimenaren eskatzaileek aplikagarri diren legeek eskatzen dituzten baimen guztiak izatea.

Dagokion udal baimena izan behar da meatze jardueretarako, eta izapide hori egitean eskatuko dio Arraia-Maeztuko Udalak sustatzaileari onura publikoko mendia okupatzeko ezinbesteko baimena izan dezala, Mendien azaroaren 21eko 11/2007 Foru Arauaren 26.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Horiek horrela, ezin da onartu Mendi Zerbitzuaren asmoa, ez baita egoki arau subsidiarioen aldaketa prozedura honetan aldaketaren sustatzaileak onura publikoko mendia okupatzeko baimena duen edo ez adieraztea.

Si bien en el acuerdo de aprobación inicial la superficie afectada asciende a 204, 8 Has., se ha producido una variación en los lindes del ámbito de actuación en virtud de la cual la nueva zona canterable asciende a 178, 11 has.

Dicha variación es consecuencia de la modificación de los linderos Norte y Oeste, además de quedar fuera de la propuesta la zona perteneciente al Barranco Perrarán como resultado del Procedimiento de Impacto Ambiental y de los estudios geológicos de la ocupación del suelo por las arenas objeto de la explotación.

**Segundo.- Sobre la idoneidad del expediente presentado.**

Al no afectar a la clasificación del suelo y únicamente de modo puntual y aislado a la estructura del territorio, cabe considerar procedente el expediente de Modificación de Normas, siempre que se adecue a lo dispuesto al respecto en los artículos 103 a 105 de la Ley 2/2006, en cuanto a que ha de realizarse a través de la misma clase de plan y observando el mismo procedimiento de tramitación.

Por ello, además de la documentación recibida deberá contener un Estudio de Viabilidad Económica de la actuación prevista por etapas (artículos 103, 104 y 62 de la Ley 2/2006).

**Tercero.- Sobre la situación actual de la explotación respecto de la ordenación urbana y su afección al suelo no urbanizable protegido.**

El expediente propone la recalificación de 177,8 Has pasando de la Zona Z9 de Especial Protección a la Zona Z8 Canteras, de las que 58,71 Has. ya forman parte de las actuales actividades extractivas de la cantera, por lo que en realidad se trataría de su legalización en este expediente.

Causa sorpresa, por otra parte, que por el lindero Norte de las actuales 144, 08 Has. canterables, exista afectando a la actual Z2 de protección forestal, una zona de 11,87 Has ocupada por rellenos, interfiriendo en el denominado Barranco Largo, así como dos frentes de cantera abiertos, que suman 9,56 Has., por su lindero Este, sin que se hayan incluido en el expediente de modificación, por lo que, aclarada su situación, deberán sumarse al presente procedimiento como canterable o como forestal a restaurar, si procediere. No consta, por lo tanto, que dispongan de las preceptivas licencias de actividad ni de obras, asunto cuya resolución corresponde a instancias municipales.

**Cuarto.- Sobre la ocupación de Montes de Utilidad Pública (MUP).**

El Servicio Foral de Montes emitió sendos informes sobre el proceso de tramitación, el 12 de agosto de 2010 y el 28 de septiembre de 2011, correspondientes a la fase de exposición al público del expediente después de su aprobación inicial por el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu y a la tramitación del Estudio de Impacto Ambiental. En ellos, se remite al art. 26.3 de la Norma Foral 11/2007 de Montes y al art. 39 de la Ley Estatal 13/2003 sobre delimitación del uso forestal en el planeamiento urbanístico. En dichos informes se solicita que se suspenda la tramitación de la modificación en tanto en cuanto se resuelva el oportuno expediente de ocupación de monte de utilidad pública.

Ha de señalarse que en aplicación de la legislación urbanística vigente solamente el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental se tramita en paralelo al de la propia tramitación urbanística por así disponerlo el Decreto 183/2003, de 22 de julio.

Las autorizaciones sectoriales, (carreteras, aguas, montes, etc) disponen de su propio procedimiento que se tramita con independencia del urbanístico, siendo necesario que el solicitante de cualquier licencia de actividad que se plantee al ayuntamiento disponga de todas las autorizaciones que la legislación aplicable en cada caso exija.

El ejercicio de la actividad minera exige la obtención de la correspondiente licencia municipal, y es en ese trámite cuando el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu deberá exigir al promotor que cuente con la debida autorización de ocupación del monte público, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 26.3. de la Norma Foral 11/2007, de 21 de noviembre, de Montes. Es por ello que no cabe acceder a la pretensión del Servicio de Montes por no corresponder en este procedimiento de modificación de las normas subsidiarias pronunciarse acerca de si el promotor de la modificación dispone o no de la autorización de ocupación del monte público.

Bestalde, 2011ko irailaren 23ko txostenak Laminorian "harrobigaiak ateratze aldera, OPko 556 eta 541 mendien okupazioa berrikustea eta mugatzea" izeneko agiriaren berri ematen du. Agiri hori Arabako Foru Aldundiaren dagokion sailaren 2005eko otsailaren 8ko erabakian jasotzen da eta 316,731 hektareari eragiten dio.

**Bosgarrena.- Eremua mugatzea eta jarduera perimetroa.**

Egungoa handitu eta harrobi gisa espedientean proposatzen den behin betiko perimetroa meatze gaien egoera dela-eta egindako zenbait aldaketaren, haien mugak aldatzearen, antzemandako ingurumen eraginaren eta eragin hori zuzentzeko proposatutako neurrien ondorio da. Horiek horrela, espedientearen definizioa ondokoek arrazoitzen dute:

1. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak IEBEren txosten osagarrian zehaztutako irizpideak.

2. Jarduera perimetroak bere baitan hartzen dituen hektarea kopuruan egindako hutsaren ondorio dira zuzenketak. Huts horiek hirigintza espedientean egin ziren.

3. Eraikitze proiektuaren xehetasun mailan, GPSz lortutako emaitzak, 2010eko urrian lortutakoak.

Ondoren egindako xehetasunezko azterketa geologikoaren beharra arrazoitzen da.

Azterketa hori aztertutako areako iparraldeko eta mendebaldeko sektorean ustiatutako silize-hareazko hormaren kokapena zehatz-mehatz kokatu beharrak eta meategietako segurtasunerako arau osagarri teknikoen ugaritzeak arrazoitzen dute. Horma hori ustiapenaren muga bihurtzen da, zeren eta harearik erauziko ez balitz, luiziak egongo bailirateke hormako buztin gainean. Luizi horiek arriskutsuak izango ziren pertsona eta ingurumenerako, udalari aurkeztutako proiektu teknikoan, teknikoki eta zientifikoki egiaztatzen denez.

Xehetasunezko azterketa geologikoa hormak eta hareak bat egiten duten zenbait kontrol puntu GPS bidez lortzean zetzan. Arabako Foru Aldundiak beste hainbeste egin zuen Perraran trokako babes linea zehatz-mehatz definitzeko orduan.

Informazio horretan eta zundaketa datuetan oinarrituta, berriro definitu da ustiaketaren perimetroa, Arabako Foru Aldundiaren txosten osagarrian ezarritako ildoak betez eta ildo horiek daudeneko kontaktu edo ukipen puntuen benetako egoerara doituz.

Hortaz, perimetro orokor horrekin honakoa lortzen da:

• Hareen unitatea perimetro barruan egotea erabat, ustiapenaren horma hareen azpiko materialetan egon dadila saihestuz, halakoren batean egonez gero, luiziak eta gune ez egonkorrak sortuko baitziren.

• Perraran trokako haranean ez eragindako azalera 18 hektarea handitzea, sustatzaileak proposatutako hasierako perimetroa eta Arabako Foru Aldundiak proposatutako muga erabat errespetatuz.

• Ibilguetan afekzio berririk ez eragitea.

• Arraia-Maeztuko Udalak antzemandako hirigintza hutsa zuzentzea.

Beraz, hirigintza planean harrobi gisa definitutako perimetroa arrazoituta dago. Horrek ez du aurreikusten, ordean, etorkizunean ustiapenak izan beharreko hedadura. Hedadura hori beste prozedura eta ezinbesteko baimen batzuek baldintzatuko dute.

Hain zuzen ere, udal obra baimenak honakoak behar ditu:

• Meatze emakida, ingurumen eraginaren azterlana duela.

• Meategia ustiatzeko eskaeraren IEAri buruzko Eusko Jaurlaritzaren aldeko txostena, jarduera baimena emateko.

• Onura publikoko mendiak okupatzeko Mendi Zerbitzuaren baimena.

• Harrobiaren hirigintza kalifikazioa eta Ingurumen Sailak jarritako zuzentze neurriak.

Por otra parte, el informe de 23 de septiembre de 2011 da traslado del documento "Revisión y delimitación de la ocupación de los montes de U.P. nº 556 y nº 541 para extracción de productos canterables", en Laminoria, del correspondiente Departamento de la Diputación Foral de Álava, acuerdo de 08/02/2005, en una extensión de 316,731 Has.

**Quinto.- Sobre la delimitación del ámbito y el perímetro de la actuación.**

El perímetro definitivo propuesto por el expediente como canterable en ampliación del actualmente existente es el resultado de varias modificaciones como consecuencia de la situación de los productos mineros, las precisas modificaciones de sus límites, el impacto medio ambiental detectado y las medidas propuestas para su corrección. Y así, el expediente justifica su definición en función de:

1. Las directrices establecidas por el Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad de la Diputación Foral de Álava en su Informe Complementario del ECIA.

2. Las correcciones derivan del error en el número de hectáreas del perímetro de actuación, detectado en el expediente urbanístico.

3. Los resultados con GPS a nivel de detalle de un proyecto constructivo, realizado en octubre de 2010.

A continuación se justifica la necesidad del estudio geológico de detalle realizado.

El reconocimiento vino motivado por la necesidad de establecer con precisión la posición del muro de las arenas silíceas objeto de explotación en los sectores norte y oeste del área observada, constituyéndose en límite de la explotación, dado que la no extracción de las arenas posibilitaría deslizamientos de material sobre las arcillas de muro con el consiguiente riesgo para las personas y el medio ambiente, tal como se ha justificado técnica y científicamente en el correspondiente proyecto técnico entregado en el Ayuntamiento, y como consecuencia de la ampliación de las Normas Técnicas Complementarias de Seguridad Minera.

La investigación geológica de detalle, consistió en la obtención mediante GPS de números puntos de control (waypoinsts) a lo largo del contacto de muro de las arenas, al igual que hizo la Diputación Foral de Álava para definir en detalle la línea de protección del Barranco Perrarán.

A partir de esta información, y apoyándose en los datos de los sondeos, se ha redefinido el perímetro de explotación respetando las directrices establecidas en el informe complementario de la Diputación Foral de Álava y ajustando estas directrices a la situación real de los contactos existentes.

Por tanto, con este perímetro general se consigue que:

• Toda la unidad de arenas quede dentro del perímetro, evitando que el muro de la explotación se sitúe en materiales subyacentes a las mismas, lo que podría dar lugar a deslizamiento e inestabilidades.-

• Se incremente la superficie total no afectada en el Valle del Barranco Perrarán respecto al perímetro inicial propuesto por el promotor en 18 Has. y respetando totalmente el límite propuesto por la Diputación Foral de Álava.

• No se produzcan nuevas afecciones a cauces.

• Se subsane el error urbanístico detectado por el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu.

Resulta por tanto justificado el perímetro definido como zona canterable en el Plan Urbanístico, sin que ello prejuzgue en ningún momento la extensión de la explotación futura, condicionado por otros procedimientos y necesarias autorizaciones.

En efecto, la licencia municipal de obras precisa de:

• Concesión minera, con Estudio de Impacto Ambiental.

• Informe favorable del Gobierno Vasco sobre el EIA de la solicitud de Explotación Minera para conceder la licencia de actividad.

• Autorización del Servicio de Montes para ocupar de Montes de Utilidad Pública.

• Además de la calificación urbanística canterable y medidas correctoras impuestas por Medio Ambiente.

**Seigarrena.- Espedientearen ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa.**

Ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren 23. artikuluak xedatzen du hirigintza planak ingurumen eraginaren behin betiko txostena jaso behar duela.

Ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedurari buruzko txostenak egin zituen Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak:

Aldez aurreko kontsultak, 2008ko ekainaren 1ean, aurretikoak, 2008ko urriaren 3an, horren osagarria, 2010eko urtarrilaren 22an, eta behin betikoa, 2011ko ekainaren 10ean.

Ondoren, 2011ko irailaren 21ean, aztergai dugun aldaketa espedienteari buruzko txostena bidali zuen.

Izapideen artean nabarmendu behar dira espedientearen hasierako onarpenaren aurretiko txostenak babestu beharreko zonei (Urzatxa-Arbozuko gailurra eta kare-haitza eta Perraran trokako harana) buruz egiten duen aipamena eta gainerako neurri zuzentzaileak. Hona hemen hitzez hitz:

"Hau da, Urzatxa-Arbozuko gailur inguru guztia, txosten honen eranskinean jasotako mapan adierazitako mugekin bat etorriz, babestu egin behar da erauzte lanetatik eta, beraz, udal planeamenduan egun duen kalifikazioari (Babes Bereziko zona) eutsi egin beharko lioke, zeren eta, adierazi denez, zona horretan harrobia handitzeak gailurreriaren bitxitasunean eta aberastasun botanikoan eragin ekologikoa izango bailuke, bai eta Paisai Bikain gisa katalogatutako zonan paisaia eragina ere. Batean zein bestean izango lukeen eragina larria izango litzateke".

"Hau da, nola Ega-Berron ibaiaren EBILean duen eragina hala berezitasun bikaineko balio geobotanikoak daudela kontuan hartuta – Europar Batasunak, duten lehentasunezko interesa dela eta, bata zein bestea habitat babestu izendatzen ditu–, egoki jotzen da Perraran trokaren inguruak egun duen babes bereziko zonaren kalifikazioari eustea hirigintza planeamenduan, eta, beraz, ez onartzea bertako topografia edo landaredia aldatzen duen erabilerarik".

Aurretiko txosten horren ondorioz, aldatu egin da eremuaren mugaketa, proposamenetik Perraran troka kanporatu baita.

Urzatxa-Arbozu gailurreriari dagokionez, sustatzaileak proposatutako eta Arraia-Maeztuko Udalak behin-behineko onartutako mugaketari egiten dio aipamen behin betiko txostenak. Txosten horrek arrazoitzen du gailurrak ezin diola eutsi egun duen kotari, eremu handi batean goitik beherako luizi arrisku handia arazo teknikoa baita. Eremu horrek ustiatutako hareen gaineko buztin geruzaren plano labainkorra jarraitzen duen zona hartzen du.

Era berean, ingurumen eraginaren behin betiko txostenean jakinarazten da nola ustiapen proiektua hala ingurumena leheneratzeko proiektua, IEBEren prozedurako aurretiko fasean aurkeztutako proposamenarekin erkatuz gero, oso aldatu zirela, aldatu ere hasierako onarpena emateko aurkeztu zen dokumentuan. Horrek eragina askoz arinagoa izan dadin ekarri du berekin. Eragin hori, halere, handia da, ez larria, ordea, hasiera batean aurreikusita zeuden ustiapen eta ingurumena berreskuratzerako sistema eta motarekin gertatzen zen bezala. Izan ere, ustiatze eta leheneratze lanak batera egitean, kaltea ez da hasieran aurreikusten zen bezain ikusgarria izango, eta eragin ekologikoa txikiagotu egingo da tokiko landaredia arian-arian leheneratzeko planteatzen diren lanekin:

"Honetan datza orain proposatzen den ustiatze sistema: transferentzia meatzaritza kuartel estuekin, iparraldetik hegoaldera eskaileran eta zuzenean garatuko den aurrealdearekin, iparraldeko aurreak lehenago landuz, buztin gaineko materialei ziria ez kentzeko. Sistema honekin ez da azalera erabat okupatzen. Horiek horrela ustiatze lanak eta leheneratze lanak txandakatu egin daitezke eta, ondorioz, arian-arian leheneratzea dago harrobia izan aurretik zegoen basogintza erabilera.

**Sexto.- Sobre la Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental del expediente.**

El art. 23 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, indica que el Plan Urbanístico ha de tener en cuenta el Informe Definitivo de Impacto Ambiental

El Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad elaboró los informes relativos al Procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental correspondiente:

El de consultas previas el 1 de junio de 2008, el preliminar el 3 de octubre de 2008 y su complementario el 22 de enero de 2010 y el definitivo el 10 de junio de 2011.

Posteriormente, el 21 de septiembre de 2011 emite informe sobre el expediente de modificación que nos ocupa.

De su tramitación hay que destacar la referencia que el informe preliminar previo a la aprobación inicial del expediente hace de las zonas que deben ser objeto de protección estricta: cumbrera y roquedos calizos de Urzatxa-Arbozu y Valle del Barranco de Perrarán, además de otras medidas correctoras, diciendo textualmente:

"En definitiva, estimamos que toda la zona de cumbrera de Urzatxa-Arbozu, de acuerdo con la delimitación señalada en el mapa anexo a este Informe, deber ser objeto de conservación frente a la actividad extractiva y que por tanto debería conservar su calificación actual por el Planeamiento Municipal como Zona de Especial Protección, puesto que según se ha detallado la ampliación de la cantera en esta zona generaría unos impactos ecológicos sobre la especial singularidad y riqueza botánica del cresterío, y unos impactos paisajísticos sobre la zona catalogada como Paisaje Sobresaliente que consideramos en ambos casos de magnitud crítica"

"En definitiva, tanto por la incidencia sobre el LIC del río Ega-Berrón como por la presencia de valores geobotánicos de excepcional singularidad, que se constituyen en Hábitats protegidos por la Unión Europea por su Interés Prioritario, se estima que el Planeamiento Urbanístico debe conservar también para esta zona del barranco Perrarán la calificación vigente como -Zona de Especial Protección- de manera que no sea admisible ningún uso alterador de la topografía y cubierta vegetal".

Como resultado de dicho informe preliminar, resulta modificada la delimitación del ámbito al excluirse de la propuesta el Barranco de Perrarán.

En cuanto a la zona de la cumbrera de Urzatxa-Arbozu, el informe definitivo se refiere a la delimitación propuesta por el promotor y aprobada provisionalmente por el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu, justificando la imposibilidad de mantener la cota actual de dicha cumbrera debido al problema técnico que supone el elevado riesgo de desprendimiento hacia cotas bajas de una gran zona siguiendo el plano deslizante de una capa de arcillas que existe sobre las arenas explotables.

Asimismo, se señala en el informe definitivo de impacto que tanto el Proyecto de Explotación como el de restauración Ambiental fueron modificados (ya en el documento presentado para la aprobación inicial) de forma muy sustancial en relación con la propuesta que se presentó en la fase preliminar del procedimiento de ECIA. Ello conllevará una minimización de los impactos muy relevante, hasta unos niveles que aún siendo severos no alcancen una magnitud crítica, a diferencia de lo que ocurría con los sistemas y modo de explotación y de restauración medioambiental que estaban previstos inicialmente. En efecto, por un lado, al simultanearse la explotación con la restauración, la alteraación ocasionada será menos visible que la que se planteaba en un principio, y por otra, se minimiza el impacto ecológico con la recuperación progresiva que se plantea de la vegetación forestal autóctona:

"El Sistema de Explotación que ahora se propone consiste en llevar a cabo una minería de transferencia con cuarteles estrechos, con un frente a desarrollar longitudinalmente de Norte a Sur en escalera, llevando ligeramente más avanzados los frentes del Norte para no descalzar los materiales sobre las arcillas. Este sistema tiene la ventaja de que no se ocupa simultáneamente toda la superficie, y que el avance de la explotación se combina con la restauración, de manera que es posible recuperar muy progresivamente el uso forestal previo a la cantera.

Harrobiaren ustiatze sistema aldatzeak oso hobetzen du, ekologia eta paisaia aldetik, eraginak txikitzeko proiektua, batez ere harrobian aspaldidanik erabiltzen den ustiatze erarekin eta harrobia handitzeko proposatzen zen hasierako planteamenduarekin erkatuz gero.

Horrez gain, kontuan hartzen badira aurkeztutako IEBE azterlanaren eranskinean jasotako hiru "transferentzia meatzaritza" aukerak, sustatzaileak harrobia ustiatzeko egindako hautua egokiena da ingurumen eta paisaia ikuspuntutik: eskailera eran aurrera egitea, banda estu eta luze baten bidez.

Ingurumen eraginaren azterlan osagarrian eskatzen zen aztertzeko ustiatutako kuartelek aire zabalean egiten zuten denbora oraindik ere gehiago murrizteko aukera. Denbora hori ustiapen planean bi urtekoa izan zedin aurreikusten zen. Behin-behineko onarpena jaso duen agiriak adierazten du lan plataformarako ezarritako gutxieneko zabalera hareetan urte eta erdian ekoitzitakoaren parekoa dela. Halere, plataforma horrek ez du inoiz 50 metro baino gutxiago izango, zabalera hori baita harrobietan makina astunak abian jartzeko, zamatzeko eta garraiatzeko lanetarako gutxieneko segurtasun baldintza (ITC MIE 07.1.03). Ondorioz, ingurumen eragina minimizatzea bermatzen duen ingurumen ikuspuntutik, egoki jotzen dugu enpresak proposatzen duen ustiatze plana.

Bestalde, zehaztu egiten dira gailurrerian goiko aldean Europar Batasunaren intereseko habitat gisa katalogatutako eremuak okupatzeagatiko konpentsazio neurriak.

Prozeduran ezarritako baldintzak eta zehaztapenak jasota, behin betiko testuan kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak adieraziz, aldaketaren espedienteari buruzko bere txostenean, Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak ondokoa erabaki du:

"1.- Eraginak arindu eta eremua egoki leheneratzeko, ezinbesteko baldintza da ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozeduran eskatutako ekonomia eta ingurumen baldintzekin bat etorriz ustiatu eta leheneratu dadila harrobia, nola ustiapen planari hala harrobiaren leheneratze-birlandatze planari dagokienez. Horrez gain, beste administrazio organo eskudun batzuek beste baldintza gehigarri batzuk betetzea eska dezakete.

